

KULTURKRITIKA

» LIBURUA

Identitarioa



Igor Estankona

Seamus Heaney (An Seanmhullach, Derry, 1939 –Dublin, 2013) Ipar Irlandako familia errepublikano batean jaio zen. Ingeles inperialismoak, zapalkuntza hark, betiko sartu zuen irlandar idazle abertzaleen zerrendan. Gaitzak hartua mendean, hala bizi izan zen, irlako beste idazle askoren antzera: “Irlandar poeta batek ingeles tradizio literariora helbidea dauka ingeles hizkuntza erabiltzeagatik, baina nekez sentituko da etxean moduan”.

Death of a Naturalist (1966) izan zen bere lehen poema liburua; ordurako Belfasten sortua zuten halako giro literario bat, giro politikoak zipriztindua: “Ez zen nire egin beharra, baina nire arazoa zen hura”. 1972tik hegoaldera etxer aldatua, han loratu zen sustraiak iparraldean eta hegoak mundu osoan dauzkan poesia egiazko bat, politikari muzin egin barik jolas egiten duena lirismoarekin, misterioa eta sinboloa errealtatearekin nahastuz. *North* (1975) izan zen loraldi horren biblia: “Antzinako errota baterako gaia,/ Eta nire bihotz-begiekin ikusi nuen/ Orekan dauden harrien mundu-lizar bat,/ Errotarriak orno-hezurren gisan pilaturik,/ Hezur-muin birrinduak zoru”. Eta iruditu zait Xabi Bordak egin duela itzulpen bat indartsua eta fina, aberatsa bezain eraginkorra.

Eta uste dut liburu hau disfrutatuko duela eguneroko naturaren opariez gozaten dakienak –dela belarraren berdea, lurraren sikua– eta konexio bat bilatzen dionak izadiari gure ongizatearekin, gure arazoekin.



Nobel Saria eman zioten 1995ean. Beñat Sarasolak hitzaurrean dioen moduan, pasa

Seamus Heaney

ANTOLOGIA

Itzultzailea: Xabi Borda
Susa, 2017

Seamus Heaney idazlea
(An Seanmhullach, Derry,
1939–Dublin, 2013).



den mendeko poeta handienetakoen artean kokatu zuen horrek. Baina lehendik zen Seamus Heaney bere herriko handietarik: “Non ur bareak/ Neagh lakuaren uharkan gainezka egiten zuen/ Mundu lauaren ertz batera iritsi balitz bezala/ Eta distiratsu jausten zen/ Bann ibaiaren etengabeko orainaldian”. Seamus Heaneyren metafora berriak ere zaharrak dira, mitoan dute sorburua, klasikoki zeltak dira bere molde greko-latindarrak. Agian horregatik irudituko zaizu lagun baten liburua ari zarela lehenengoz irakurtzen. Hasieran xaloa da, gero lerroarteak bereizten hasiko zara.

Azkenik zeure buruari galdetuko diozu zelan, Derrykoa izanda, dakien hainbeste Euskal Herriaz. ■

OKERRAK ZUZEN: Egilearen argazki okerra publikatu zen joan den astean atal honetan: Pierre Bordazarre “Etxahun” Irurikoa zen argazkikoa. Pierre Topet “Etxahun” barkoxtarra behar zuen.